



euskalmendizalefederazioa

Gasteizen, 2017ko martxoaren 23an

Kaixo, lagunok:

Honako idatzi honen bidez, Euskal Mendizale Federazioaren (EMF) Ohiko eta Ezohiko Batzar Orokorrerako deia egiten zaizue, ondoren adierazten diren xehetasunen arabera:

EGUNA: 2017ko **apirilaren 8a**, larunbata.

ORDUA: lehen deialdia **10:00**etan, eta bigarrena, **10:30**ean.

LEKUA: Elgoibar

OHIKO BATZAR OROKORRERAKO GAI-ZERREDA

- 2016ko apirilaren 9an egindako Ohiko Batzar Orokorraren akta irakurtzea eta, hala badagokio, onartzea
- Lehendakartzaren txostena
- 2016ko kontabilitatearen itxiera
- Jardueren egutegia
- Kirol Justiziako Euskal Batzordearen ebazpena
- Galderak eta eskariak

EZOHIKO BATZAR OROKORRAREN GAI-ZERREDA

- Mendi-lasterketen araudiaren onarpena
- Ehun mendien araudiaren onarpena


HONEKIN BATERA IGORRITAKO DOKUMENTUAK:

- Batzarraren akta.
- Jardueren egutegia
- 2016ko kontabilitatearen itxiera
- Mendi-lasterketen araudia
- Ehun mendien lehiaketako araudia

SINESTAMENDUA: Gogoan izan, estatutuetan jasotzen denaren arabera, legez onartutako ordezkariak osatzen dutela Batzar Orokorra, eta ezin izango da botoa beste inoren esku utzi. Kluben kasuan, klub bakoitzeko ordezkari batek soilik eman ahal izango du botoa batzarrean, eta, horregatik, bilerara doazen kideei identifikatzeko eskatuko zaie. Idazkariak edo lehendakariak jaulkitako agiri bat aurkeztuko dute klubek, eta klubaren ordezkaritza bere gain hartzen duen pertsonaren datuak jasoko dira agiri horretan (ordezkariak aurkeztu beharreko agiriaren eredia doakizue honekin batera); bilerara gonbidatu gisa doan pertsonak ez du botorik izango.

Mendizaleen, teknikarien eta epaileen ordezkariak Nortasun Agiria edo antzeko agiriren bat aurkeztu beharko dute.

Bilerara joango zaretelakoan eta parte hartuko duzuelakoan, jaso ezazue nire agurrik beroena.


Sin.: Jose Ramón Alonso Rodrigo
Presidentea

